# bideak eta biderik ezak

Frankismoaren garaian, pareta bat zegoen Madrillen, eta denek ziketen. Orain pareta bat dago Madrillen, eta batzuk ez bide dute sinesten. Ez baitago gor gorragorik, entzun nahi ez duena baino.

Frankismoaren aurreko garaia, halere, urrun xamar izan arren, ez da Eneko Aritzaren garaia!... Gerra-aurreko gizon publiko mordoska bat dugu gaur ere, hortxe ekintzan ari: Irujo, Leizaola, Montzon, Jauregi.

Hitz batez: 1931-1936 bosturtean gertatu zena, hortxe dago, lekukoz eta urtez eskumenean; eta hura hazterik ez daukagu. Hots, bost urte famatu hartan, Madrillek ez zuen ezer eman. Eta Franco hillez gerozko hiru urte luze honetan ere, ezer ez zaio Euskal Herriari eman. Egurra bai: ugari. Baina besterik ezer gutxi.

Lehengo pareta hor dago, beraz, tinko; nahiz oraingoa kisuz eta margoz apaindurik agertu: Ontzat eman ez dugun Konstituzioa, lege bihurtu zaigu; eta proposatu genituen aldaketa guztiak bota dira bazterrera.

Hortaz, zer egin?

Oso filosofo famatu batek esan zuenez, "edozein gizartetan, nagusi diren ideiak, klase nagusiaren ideiak" baizik ez dira. Eta, hildo beretik, inpeerialismoari buruzko arazoetan horrelako zerbait esan nahi izanez gero, hauxe liteke agian: "edozein herritan, bere gain dagoen Estatu nagusiaren ideiak direla nagusi".

Hau, jakina, soziologi-mailako fenomenoa denez, populuen mailan betetzen da ongienik; nahiz puntuzko honengan edo harengan esandakoa ez bete. Engels ez baitzen burgesiaren aldeko gertatu, ezta Txiki Paredes ere abertzaletasunari buruz hotz edo neutro.

Jarrera, pentsamolde eta jokabide iraultzaileak, beraz, iraultzaile eta berri direlako, eta diren neurrian hain zuzen, ez dira "herrikoiak" izaten; botozko aritmetikaren arabera, alegia. Herria egiaz jabetu ala, ordea, desalienatu ala bestela esatekotan, herrikoitu eta hedatu egiten dira egia eta ikusmolde berrii horiek herrian barrena.

Baina lehenengo aldian, eta hastapenetan batez ere, egia ez da "herrikoia" izaten; eta ideia iraultzaileak, aginte nagusiaren ideiak ez direlako hain zuzen, ez dira haseran, eta ezin izan litezke, gehienen ideiak, gutxienen ideiak baizik. Profeta ez da inoiz botoz mukurru heldu.

Naziotasunaren arazoak, askotan esan denez, erlijioak, ideiologiak edo klaseak zeharkatzen ditu; hauek ere, berebat, nazioa zatitzen duten bezalatsu. Abertzaletasunaren pizkundea, horregatik, gaitzi eta arrotz gertatzen da hastapenean populuen mailan; naziotasunari dagokionez ere, inperialismoaren zanpaketa oso sakona delako.

Hau guztia dela-ta, boto bidez iraultzak edo aldakuntza sakonak nahi izatea, behin eta berriz gertatzen da ameskeria: Boto bidez neurtu egin baitaiteke egoera, termometroaz sukarna neur daitekeen bezalaxe. Baina osasuna termometro hutsez ekar ezin daitekeen bezala, boto hutsez ere ezin daiteke aldakuntza sakonik batere ekas; Eta Aberriaren askatasuna ere ez.

Aldakuntza sakonak lortu nahi dituenak, horretara, botozko demokraziaren eta electoralismoaren mugez jabetu behar du garbiki aldakuntza sakonak nahi dituenak (eta abertzaleak ere bai, hortaz), elektoralismoaren tresnak arbuiatu gabe, elektoralismo hutsaren barruan geldi ezin daitekeela jakin behar du. Batez ere ehuneko 8 edo 10-tatik gora heltzerik ere ez daukala dakielarik.

Hauteskunde garaiez kanpo lotan edo lozorroan gelditzen diren alderdi eta pertsona abertzaleek nekez sinetsaraz diezagukete, beraz, Euskal Herrian zinezko aldakuntzarik batere nahi dutenik.

Europako Estatuetan lau urtetan behin gertatu ohi diren sukaraldiak, bertago egon ohi dira nolanahiko maskaradetatik, beste edozertatik baino; eta ez dute bertako burgesiak apaintzeko eta zuzenesteko besterik ezertarako balio. Aldatu, jakina denez, lau urtetan behingo bozaldi koloretsu horiek, ez dute inoiz naziozko ez klasezko iraultzarik lortu. Eta zinez esan daiteke, horregatik, eskuindarren iskilurik zorrotzena hauteskundekeriaren mitoa dela.

Abertzale guztiek jakin behar lukete hau guztia, eta beste gauza asko ere bai; baina oraindik pilo batek ez dakizkiela, gauza nabarmena da.

Hots, honeetaz argiro jabetu ez direnei, hau esan behar diegu: Behin eta berriz gfrogatua izan denez, bide horiek ez dutela irtenbiderik, eta ez daramatela inora. Edo, zehazkiago hitz egiteko, leunleunki, Euskal Herriaren urkaberara daramatela.

Zizpak hartuko, hortz, denok?

Horra hor eleektoralismoaren zuloan daudenek, ezezkoaren esperantzan, jaurti ohi duten galdera.

Baina hautakizuna ez da hori.

Madrilleko pareta ikusirik, burruka harmatua ezinbestezkoa dela erabaki dutenak gaitzetsi gabe (eta bi urte hauetan barrena ikusi duguna ikusi ondoren, nekez gaitzets ditzake gure gudariak abertzale den inork), badago bortxarik gabeko burruka-mota guztien eremu zabala.

Hauteskundetik hauteskunderako epe luzean egin daitezkeen -eta egin behar diren-populu-ekintzen alora dago, masa-ekintzena alegia.

Eta honen barruan, sail berezi gisa, laburki eta hitz bakar batez adieraz daitekeena: Gandhi, Bortxarik gabeko ekintzak, bestela esateko.

Horietako bat, eta apala, izan da Nanclares-ko gartzelara eraman gaituen itxialdi-segida. Horietako bat diot; ezen beste hamaika horrelako asma baitaiteke; Aski da, Gandhi-ren bideari ekinez, euskal legetasuna nagusi balego bezala jokatzea.

Eta garaia da, bide beretik, burruka harmatuan ari ez diren abertzale burrukalariek irtenbiderik ez duten bideei eta politika-alderdiei uzteko; eta bortxarik gabeko ekintza-mota honen garrantziaz ongi jabeturik, elektoralismo hutsaren ezintasunetik atera gaitzaketen jokabide hauetan deliberatuki eta ausarki sartzeko.

TXILLARDEGI

Nanclares, 1979ko Otsailean




# colaboración

## por un trabajo humanizado

*ELA-STV*
*E. M. Kassalov*

De manera muy fundamental, los sindicatos siempre se han preocupado por mejorar el trabajo y las condiciones laborales. Un gran número de las primeras luchas emprendidas por los sindicatos lo eran contra las lornadas de trabajo de una longitud inhumana y contra las condiciones laborales atroces y peligrosas, al mismo tiempo que por salarios más elevado.

Sin embargo, no había prácticamente ningún sitio en el que se encontrara la idea de que los trabajadores y sus sindicatos tenían el derecho de participar en la organización del trabajo mismo; o bien que este trabajo tenía que dar satisfacción a los trajadores. El trabajo era considerado por regla general como una especie de mal necesario.

Un mal para obtener otras satisfacciones.

Por decirlo de manera más elegante, el trabajo era interpretado como una especie de instrumento del que uno se servía para obtener otros objetivos, es decir, para el consumo de bienes y de servicios. La esencia del nuevo movimiento de humanización del trabajo consiste en que el trabajo es considerado intrínsecamente en sí mismo como algo que tiene que contribuir directamente a que sea más agradable la vida del trabajador (...).

Los sindicatos tienen que encontrar los medios adecuados para hacer frente a este desafío. Nunca se subrayará suficientemente que la humanización del trabajo no es nada que pueda sustituir al sindicalismo y al papel de los sindicatos en la representación de los trabajadores. Sin la fuerza de un sindicato y sin las garantías que ofrece la misma, los trabajadores encuentran que una buena parte de esta humanización del trabajo no es sino ficticia, no ofreciendo más que muy pocas posibilidades para responder a sus necesidades fundamentales de seguridad en el empleo, pudiendo ser también barrida de un plumazo con motivo de la primera tormenta económica o de un capricho de la dirección. Este movimiento no tendría que ser considerado como un remedio milagroso, una especie de nueva utopía, como la describen a veces sus más encendidos partidarios.

## apocalipsis

*DEIA*
*Odei Erreka*

Los sucesos de la Universidad de Deusto son representativos de una paranoia que alcanza, desde hace tiempo y en un proceso de gigantismo ya denunciado por algunos, los estratos más jóvenes de una humanidad sumida, increíblemente, en una función autodestructiva propia del hombre auténtico y relevante en un mundo kafkiano.

Un número indeterminado de universitarios celebró su aburrimiento, problema perpetuo de quien persigue sólo ditirambos, poniendo en práctica una representación bufonesca y pretendidamente divertida, un cerebro de cachorro tal vez imagine la gracia en la burla de su madre, de una misa concelebrada en la que los disfraces sacerdotales llegaban al paroxismo de imitar la comunión sacramental repartiendo galletas de cuya marca no han informado.

La reacción de la dirección del centro no se ha hecho esperar y, tras un adecuado informe que supongo veraz, ha abierto un expediente de expulsión para los más significados en esa comparsería de desocupados. El alumno, entonces, a mí me parecería más adecuado decir solidifica, y determina la huelga de presión para la readmisión de los compañeros -aquí también creo que se debía denominar a los tales con otra palabra más definitoria de su carácter que la que indica igualdad y esfuerzo común hasta un objetivo concreto- maltratados.

Y este desecho sucintamente narrado me llega el mismo día que leo un artículo de J.J. Benítez en donde comunica el descubrimiento de la rama muerta del viejo roble juntero y afirma las conclusiones de ignorancia sobre la enfermedad causante de su vaciamiento, por otro lado foco determinante del contagio de todo el árbol y del pronóstico de su extinción prematura, por los institutos especializados a los que se les pidio el diagnóstico correspondiente.

La coincidencia es demasiado oportuna para no detenerse a reflexionar. Como hombre, he sentido siempre un gran amor a la naturaleza y todos sus seres vivos. Como vasco mi respeto al roble de Gernika me hace visitarlo con frecuencia y pensar, allí sentado, sobre las verdades que, en boca de Hamlet, están más allá de cualquier filosofía. Quizás, en algún momento de soledad ante su tronco venerable, llegué a elucubrar sobre la falsedad de las alarmas que anunciaban el apocalipsis de nuestro pueblo, porque delante de mí, se erguía fuerte, y esbelta, su inconfundible silueta.

Mas ahora que un leve aprendizaje me ha demostrado la simbiosis en el tiempo del hombre y su medio, pienso que esa rama es la respuesta natural a aquella otra humana de nuestra gente que se burla de lo eterno y que mata lo liviano, creyendo, en ambos trances, convertirse en héroes no derrotados.

Y lo son, pero de una pantomima trágica, portadora de ese virus que se llama deficiencia mental y que, con su hedor envuelto en colonias baratas, ha herido mortalmente a todo el roble, y, tal vez, a todo vasco.

Por eso, en ocasiones, dudo de si sólo es crimen negar la educación a cualquier nacido y no lo será, igualmente, darle a quien de ella hace un uso grotesco y fútil.

## el pacto constituyente vasco

*LAIAK*

Por otra parte, la agudización de la crisis económica, el aumento del paro, los expedientes de crisis, derrumbamiento de los sistemas de Seguridad Social, carestía de la vida, etc., todo esto nos plantea el problema del futuro: ¿nos encontramos ante un bajón de la lucha revolucionaria o, por el contrario, nos encontramos ante un reforzamiento de la lucha obrera y popular?

En el caso concreto del País Vasco Sur, todo parece indicar que se trata de la segunda opción, ya que las necesidades de la pequeña y mediana burguesía la obligan a conseguir la autonomía que, por un lado, es contraria a los intereses de la izquierda (?) abertzale y por otro, a los de la clase obrera del País Vasco Sur.

Con esto no queremos decir que la izquierda abertzale esté contra la clase obrera, sino que la izquierda abertzale está guiada por unos planteamientos de radicalismo pequeño burgués, concretados a nivel práctico por ese bodrio de Herri Batasuna. Mientras que, por el contrario, los intereses de la clase obrera del País Vasco Sur necesitan la implantación de un poder obrero independiente

## el que reparte se queda con la mayor parte

*EL IMPARCIAL*

